

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH), 2014KO ABUZTUA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %4,7 gehitu ziren 2014 abuztuan

Gaualdiak %5,2 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean

2014ko abuztuan, 308.692 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 13.939 gehiago, %4,7ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Hiru lurraldeetan gehitu ziren bidaiarien sarrerak: Araban %10,0, %4,9 Gipuzkoan, %3,0 Bizkaian.

Gaualdiak, 2014ko abuztuan, 659.357 izan ziren, aurreko urtekoan baino 32.582, %5,2, gehiago. Gaualdiak ere bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan. Araban %10,0, Bizkaian %5,6, Gipuzkoan %3,1.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Abuztua 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/08	m/m-12 (%)	2014/08	m/m-12 (%)	2014/08	2013/08	plazaka		gelaka	
							2014/08	p.p.*	2014/08	p.p.*
EUSKAL AE	659.357	5,2	308.692	4,7	2,14	2,13	73,8	4,5	78,6	4,4
Estatukoak	386.217	2,0	166.923	1,6	2,31	2,31	-	-	-	-
Atzeritarrak	273.140	10,2	141.769	8,6	1,93	1,90	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	91.195	10,0	49.004	10,0	1,86	1,86	64,6	6,0	66,7	3,3
Estatukoak	64.204	9,5	30.556	8,1	2,10	2,07	-	-	-	-
Atzeritarrak	26.991	11,4	18.448	13,2	1,46	1,49	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	65.364	10,3	34.502	13,3	1,89	1,95	67,0	6,0	69,9	2,1
BIZKAIA	308.051	5,6	143.734	3,0	2,14	2,09	74,2	5,9	80,3	7,2
Estatukoak	171.882	-1,9	74.623	-3,1	2,30	2,28	-	-	-	-
Atzeritarrak	136.169	17,0	69.111	10,3	1,97	1,86	-	-	-	-
Bilbao	192.838	9,8	90.623	6,3	2,13	2,06	79,8	7,8	86,3	9,1
GIPUZKOA	260.111	3,1	115.954	4,9	2,24	2,28	77,2	2,1	81,2	1,3
Estatukoak	150.131	3,5	61.744	4,7	2,43	2,46	-	-	-	-
Atzeritarrak	109.980	2,5	54.210	5,1	2,03	2,08	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	139.880	3,5	58.728	4,4	2,38	2,40	85,9	2,4	90,2	1,6

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Estatuko bidaiariak %1,6 gehitu dira aurreko urteko abuztuaren aldean eta atzerrikoak %8,6. Araban atzeritarrak %13,2 gehitu dira eta estatukoak %8,1. Bizkaian atzeritarrak %10,3 gehitu dira eta estatukoak %3,1 gutxitu. Gipuzkoan atzeritarrak %5,1 gehitu dira eta estatukoak %4,7.


Batez besteko egonaldia, 2,14 egun; aurreko urteko abuztuan 2,13. Araban 1,86 egun, bai 2013ko abuztuan, bai 2014koan. Bizkaian 2013ko 2,09tik 2014ko 2,14ra luzatu da eta Gipuzkoan 2,28tik 2,24ra laburtu.

Plazakako betetze-maila ehuneko 4,5 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2013ko abuztuko %69,3tik aurtengo %73,8ra. Araban ehuneko 6 puntuz gehitu da, 2013ko abuztuko %58,7tik

aurtengo %64,6ra. Bizkaian ehuneko 5,9 puntuz gehitu da, 2013ko abuztuko %68,3tik aurtengo %74,2ra. Gipuzkoan ehuneko 2,1 puntuz gehitu da, 2013ko abuztuko %75,1etik aurtengo %77,2ra.

Gelakako betetze-maila ehuneko 4,4 puntuz gehitu da Euskal AE osoan; okupazioa, %78,6. Araban ehuneko 3,3 puntuz gehitu da, %66,7ra; Bizkaian 7,2ez, %80,3ra; Gipuzkoan 1,3z, %81,2ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Hotel-okupaziorik handienak abuztuan Donostian (%85,9), Gipuzkoako kostaldean (%83,4) eta Bilbon (%79,8).

Asteko eguna aintzat hartuta, 2014ko abuztuan okupaziorik handiena, Euskal AE osoan, aste-bukaeretan, %76,0; %72,8 lanegunetan.

Araban, gelakako betetze-maila Gasteizko Andra Mari Zuriaren jaietan, %77,2

Araban, bidaiari-sarrerak 2014ko Gasteizko Andra Mari Zuriaren jaietan, 9.374. Sarrerok 2014ko abuztuaren 4tik 9ra arte (6 gau). Aldi horretan, 20.334 gaualdi Araba osoan, 2013an baino %13,8 gehiago. Sarrerak %7,1 gehitu ziren lurralde osoan 2013ko festen aldean. Plazakako betetze-maila, %74,2 2014an. Gasteizen 6.633 sarrera eta 14.868 gaualdi; plazakako betetze-maila %78,4

eta gelakakoa %81,9. Sarrerak %11,1 gehitu ziren eta gualdiak %12,7 hiriburuan, 2013ko datuen aldean.

Gipuzkoan, gelakako betetze-maila Donostiako Aste Nagusian, %87,9

Gipuzkoan, bidaiari-sarrerak 2014ko Donostiako Aste Nagusian, 29.925. Sarrerok 2014ko abuztuaren 9tik 16ra arte (8 gau). Gualdiak, 73.193 Gipuzkoa osoan; plazakako betetze-maila %83,9. Donostian, 14.170 sarrera eta 37.863 gualdi; gelakako betetze-maila %94,0 eta plazakakoa %90,0. 2013.aren aldean (orduan festak abuztuaren 10-17 artean izan ziren, 8 gau) sarrerak Gipuzkoan %1,2 gutxitu dira eta gualdiak %3,2 gehitu; Donostian sarrerak %2,8 gutxitu eta gualdiak %3,0 gehitu.

Bizkaian, gelakako betetze-maila Bilboko Aste Nagusian, %86,0

Bizkaian, bidaiari-sarrerak 2014ko Bilboko Aste Nagusian, 43.661. Sarrerok 2014ko abuztuaren 16tik 24ra arte (9 gau). Aldi horretan, 97.645 gualdi Bizkai osoan eta gelakako betetze-maila %80,3. Bilbon gelakako betetze-maila, %91,3; plazakakoa, %86,0. 2013.aren aldean (orduan festak abuztuaren 17-25 artean izan ziren, 9 gau) sarrerak Bizkaian %6,1 gehitu dira eta gualdiak %3,5. Bilbon %8,9 eta %4,6 gehitu.

Landa-ostatueta sarrerak %19,3 gehitu dira eta gualdiak %7,2 abuztuan

Euskal AEko landa-establezimenduetan abuztuan 80.978 gualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %7,2 gehiago. Araban %2,5eko jaitiera; Bizkaian %13,9ko gehikuntza, Gipuzkoan %6,0koa.

Plazakako betetze-maila, %63,9, ehuneko 8,8 puntu gehiago 2013ko abuztuan baino. Araban ehuneko 3,4 puntu gehiago, betetze-maila %36,8. Bizkaian betetze-maila %62,0, ehuneko 9,3 puntu gehiago 2013ko abuztuaren aldean. Gipuzkoan 10,4 puntu gehiago, %76,5.

Euskal AEko landa-ostatueta 23.649 bidaiari-sarrera erregistratu ziren aurtengo abuztuan, %19,3 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %32,4ko gehikuntza sarreretan, Bizkaian %32,3, Gipuzkoan %10,1.

4.268 atzerritar-sarrera izan genituen, %+10,8 aurreko urtekoen aldean eta sarrera guztien %18,0. Estatuko bidaiarien sarrerak %21,4 gehitu ziren.

Batez besteko egonaldia, 3,42 egun aurtengo abuztuan, lehengo urtean baino laburragoa.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Abuztua 2014

	Gualdiak		Bidaia-riren sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/08	m/m-12 (%)	2014/08	m/m-12 (%)	2014/08	2013/08	2014/08	p.p.*
EUSKAL AE	80.978	7,2	23.649	19,3	3,42	3,81	63,9	8,8
ARABA/ÁLAVA	9.386	-2,5	3.117	32,4	3,01	4,09	36,8	3,4
BIZKAIA	24.788	13,9	7.808	32,3	3,17	3,69	62,0	9,3
GIPUZKOA	46.804	6,0	12.724	10,1	3,68	3,82	76,5	10,4

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua